

2025eko abenduaren 8ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Virginie Sabaloue, Sabine Auge, Anne Marie Darguy, Chantal Echevertz, Maité Oxarango, Patrick Barneche, Ramuntxo Oteiza, Frédéric Hernandez, Hervé Parachou, Koxe Barbier, Philippe Mongabure eta Arño Gastambide

Excusés/barkatuak: Karine Perez, Kattalin Duhalde, Samuel Biscay

1. Aurrekontu nagusiari buruzko 2. aldaketa erabakia

INBESTIMENDUA

Gastuak		IRABAZIAK	
Artikuluak (Kap.) - Operazioak	Zenbatekoa	Artikuluak (Kap.) - Operazioak	Zenbatekoa
21568 – 179 (suteen kontrako defentsa): Suteen kontrako beste materiala eta tresnak	-5 600,00	1321 – 146 (église) : Estatua eta nazio erakundeak	12 800,00
2313 – 171 (eskola): Eraikuntzak	-6 200,00	1321 – 179 (suteen kontrako defentsa): Estatua eta nazio erakundeak	10 000,00
2313 – 180 (Beltzagitea): Eraikuntzak	-13 651,00	1321 – 184 (zubia): Estatua eta nazio erakundeak	50 574,00
2315 – 146 (eliza): Instalazioak, materiala	72 500,00	4582 – 186 (zubia): Irabaziak (azpizatitzekoak)	47 000,00
2315 – 184 (zubia): Instalazioak, materiala	32 000,00		
2188 – 141 (materialaren eskuratzea): Immobilizazio orotarik	-5 675,00		
4581 – 186 (zubia): Gastuak (azpizatitzekoak)	47 000,00		
	120 374,00		120 374,00

Gastuak orotara	120 374,00	Irabaziak orotara	120 374,00
------------------------	-------------------	--------------------------	-------------------

Herriko Kontseiluak onartu du.

2. “Garrahdako Erreka” zubia – Finantzamendu plana

Herriko Kontseiluak 2025eko ekainaren 6an erabaki zuen “Garrahdako Erreka” zubiaren berreraikitze proiektua finantzatzeko plana onartzea. Obrek 31 180.00 € kostako zutela estimatu zen, horietan 25 000.00 € obra.

Xixta proiektua gauzatzeko behar duen zenbatekoa konduan harturik, iduritzen zaigu kalkulua gutietsi zela. Eguneratze horren ondorioz, obren kostua 44.307,00 €-koa litzateke, 34.521,00 €-ko (BEZ gabe) obrak barne. Zinez espero dugu operazio horrek ZPN dirulaguntzak ukaiten ahalko dituela, 2026an oraino indarrean izanen baitira. Horretarako galdea egin da.

Finantzamendu plan berria:

Gastu motak	Zenbatekoa (BEZa gabe)	Irabaziak	Zenbatekoa
Obrak	34 521,00 €	ZPN	26 584,00 €
Ikerketak	6 180,00 €	Departamendu Kontseilua	5 000,00 €
Arriskugarritasunak	3 606,00 €	<i>Dirulaguntza guziak</i> Diru propioa	31 584,00 € 12 723,00 €
OROTARA	44 307,00 €	OROTARA	44 307,00 €

Herriko Kontseiluak onartu du.

3. Lanpostu baten sortzea – Biztanle kontatzailea

Biztanle kontaketa egiteko denbora ez osoko bi lanpostu ez-iraunkor sortzeko proposamena (Maika Minjou eta Nahia Perez).

Lanpostuak sortuko dira 2026ko urtarrilaren 6tik otsailaren 14ra.

Enplegu bakoitzaren lan iraupena 151.67 orenekoa izanen da 2026ko urtarrilaren 8tik otsailaren 14ra.

Herriko Kontseiluak onartu du.

4. Enplegatzailearen parte hartzea babes sozial osagarriko labelizazio-prozedura baten kariatara

Lurraldeko Funtzio Publikoan, enplegatzailearen parte hartzea nahitaezkoa bilakatuko da osasun arriskurako 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

(Oharra: 2013ko urriaren 18an erabaki zen parte hartze bat plantan ezartzea osasun arriskurako: 10 € garbi langile bakoitz.)

Kolektibitateak erabaki du bere parte hartzea esleitzea DGCLk bere webgunean argitaratu zerrendan agertzen diren eta label bat duten kontratu eta araudietan hautatu arriskueterako.

PARTE HARTZEA UKANEN DUTEN LANGILEAK

Langile hauek ukanen dute babes sozial osagarriaren bermeetarako parte hartzea:

- Funtzionario-gaiek eta titularrek,
- Zuzenbide publikoko kontratupeko langileek edozein arrazoiengatik enplegaturik ere,
- Zuzenbide pribatuko langileek eta apendizek.

Langileek parte hartze hori ukan dezakete kolektibitatean duten lan denbora edozein izanik ere.

Lurralde Funtzio Publikoan, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzina, parte hartzearen gutieneko zenbatekoa 15 eurokoa da. Langile bakoitzeko 15 €-ko parte hartze garbia egiteko proposamena, gehi gutienez 2 seme-

alaba bere gain dituen langile bakoitzeko 10 €-ko parte hartze garbia, familia-gehigarria kalkulatzeko aplikatu araudiak finkatzen duenaren arabera.

Herriko Kontseiluak onartu du.

5. Euskal Hirigune Elkargoak esku utzi zerbitzuaren erabiltze-hitzarmena

Euskal Hirigune Elkargoak eta 5 000 biztanle baino gehiagoko lurraldeko 15 herriek helgarritasunerako herriarteko batzorde bat eta herriko batzordeak sortu dituzte.

Batzorde horien eginkizuna:

- Eraikinetako, bideetako, eremu publikoetako eta garraioetako helgarritasunaren egoera finkatzea.
- Ahalmen urritasuna duten pertsoneri edo elbarritasun motaren arabera mugikortasun urritasuna duten pertsoneri helgarritasuna zehaztea ibilbide nagusietarako; Garraioaren Kodearen L1112-1 artikuluan finkatu lehentasunezko geldialdi lekuen inguruan, berrehun metroko inguruan.

MBL legeak xedatzen du beren lurraldean lehentasunezkoa den garraio publikoaren geldialdi bat gutienez duten kolektibitate guzietan behar dituztela eraikinen eta errepideen datuak bildu geldilekuaren 200 m inguruan.

Zerbitzuek proposaturik, CCA-CIA sareko hautetsiek GLORYTECH enpresak ekoiztu Grall aplikazioa hautatu dute, erabiltzaileari informazio geolokalizatuko zerbitzua eskaintzen baitu.

Bilketaren helburua erabiltzaileari informazioa ematea da, beraz, hautetsiek lurralde osorako tresna numeriko komuna eta denen eskura dagoena erabiltzeko beharra aipatu dute.

Grall zerbitzua kitorik izanen da 5 000 biztanle baino gutiagoko herrientzat.

Hitzarmena izenpetzeko baimen galdea. Herriko Kontseiluak onartu du.

6. Hitzarmena Ondarearen Fundazioarekin elizako teilatua berritzeko

Aitzineko Herriko Kontseilu batean, San Pedro elizako teilatua berritzeko printzipioa finkatu genuen. Operazio hori nahitaezkoa da eta presazkoa itaxurak baitira; horrela eliza kanpoko elementuetatik babestuko da.

Obren kostua arintzeko eta herritarren edo nahi duenaren parte hartze zuzena galdatzeko, Aiherrako Herriko Etxeak partaidetza bat muntatu nahi du Ondarearen Fundazioarekin.

Partaidetza horri esker herritarren emaitza deialdia egiten ahalko da, herritarren eta enpresen mezenasgoa bultzatzeko.

Suskripzio publiko bat obratzeko, beharrezkoa da finantzaketa-mota horri, ondare-erronkei eta lurralde-erakundeentzako testuinguruari buruzko ezagutza duten partaideen gaitasunean eta esperientzian oinarritzea.

Karia horretara, Ondarearen Fundazioak, tokiko garapen iraunkorraren eragileak, tokiko ondarea zaintzea helburu duenak, Herriko Etxea laguntzen ahalko du suskripzio horren plantan ezartzen eta kudeatzen.

Ondare Fundazioarekin dirua biltzeko hitzarmena sinatzea proposatu da, operazio honen karietara alderdi bakoitzaren esku-hartze baldintzak zehazteko.

Herriko Kontseiluak onartu du

Gainerako gaiak:

Herriko Kontseiluaren iritzia Mercosur-i buruz: Europar Batzordeak proposatu EB-MERCOSUR hitzarmenaren berresteari kontrajartzea eta berrestearen blokatzea galdegitea.

Beltzagitean lokal bat gelditzen da alokatzeko, abisua hedatuko da.

Agiantzen zeremonia 2026ko urtarrilaren 17an iraganen da, eta orduan hasiko da elizako teilatua berritzeko diru-bilketa.

Bilkura 21:30ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide